



Fernando Eioirtza

IDAZLEA

“Herriko toki, pasarte eta pertsonen inguruko lana jasotzea oso gustuko izan dut betidanik”

Hizkuntzan, etnografian, ondarean eta beste zenbait esparrutan, Herriko kulturaren alde egin duen lanagatik omenaldia jasoko du Jerardo Eioirtza oñaitarrak

✎ **Anabel Dominguez**

ONAITI – Euskalzale eta historiazale amorratua, Herriari buruz ikertutako herrian bertan zabalzearaz arduratzen dena, Gertukoa. Beti laguntzeko prest. Gauza asko esan daitezke Jerardo Eioirtza (1944) oñaitarraren gainean. Beraz, egindako lanagatik aitortza egingo zaito ekainaren leku 9ra arte herriar talde barek antolatutako Kultur astearren baitan (ostira-

lean erakutskea zabalduko da kultur etxean), Eioirtzak bere etxeko ateak zabaldu dizko egunkari honi. Liburu artean aurkitu digu elkarrizketa honen protagonista. Beti irribarre batekin ahoan.

Omenaldia egingo dizute zure herrian. Nola jaso zenuen bertia?

–Jakin nuenen ezustekoa eta, aldi berean, *sustrua* (barrea) hartu nuen. Izan ere, egun bateko jardunaldian ordez, aste osoko programa prestatu dute. Eskerrak ere eurenetakoa.

Amolamurako Kultur astearren eskutik, 60-70 hamarkadetan Oñaitin bizitza zen euskal eta kultur berpizkundearren eragileak. Jerardo dago euren artean ere gogoan izar-go dira. Zer nolako oroitzapenak dituzu urte horietaz?

–Garai hartan Oñazkultura Elkarte

sortu zen, esaterako. Herriko neska-mutlak harremanetan jartzeko bide bat izan zen hura. Baina ez zen hori bakarrik. Aldizkari bat ateratu eta antzerki taldeak ere jarri zitiren martxan, bat euskaraz eta beste bat gaztelaz. Halaber, ikastola orduan hasi zen indarra hartzen, udal liburutegiak batzordeak bere bidea egin zuten. Urte haietan mundu osoan aldaketak gertatzen ari ziren eta Oñaiti ez zen salbuespen bat. Bi-hiru urte,

agian frankismoaren ondarrerako urte gogorrenak, kaupoan eman nituen, 1970ean soldadutzara joan nintzen, Marinara hain zuten, eta Alemanian ere egon nintzen tesina bukatzen (Alemaniar Biologia ikasi zuten). **Nolako zen euskararen egoera?**

–Auzoetan euskararen presentzia handiagoa zen. Erdi-gunean, aldir-

mutien artean bai, baina neskek erderaz jutzen zuten. Ikasketak gaztelaz baino ez gehiegi; beraz, gure kabuz ibiltzen ginen. Gaztetan, Saturraraneko Seminarioan Gipuzkoako beste herri askotariko ikasleekin egin nuen topo eta han gehiago entzuten euskara. Donostiarra joan nintzen (hango Seminarioan zazpi urte egin zituen Eioirtzak) bizpahiru irakaste militante izan nituen, Juan Mari Lekuona eta Antton Garro.

70. hamarkadan Oñaitin agerkeriak kaleratzen hasi zineten.

–Lehenengoa 1971n argitaratu zen. Ekimen hori Felix Ugartek bultzatu zuen eta lehen aleak gaztelaz zituen. **Boletín de la Biblioteca Municipal de Oñaiti** izenburupean. Bi urte geroago, **Oñaitiko Liburutegiako Agerkaria** zen

Gipuzkoatzen

- **Gipuzkoako txorlorik maiteena.** Aitzo, Lazkaomendi eta bere ingurua... eta zer esanik ez. **Oñaitiko parajeak**
- **Festa bat.** Aspalditik joan ez naizen arren, Urbilako San Inazio Eguna. Gazterako oroitzapenak badituz eta.
- **Mardi bat.** Artzanburu eta Arrurdin.
- **Hondartza bat.** Ez naiz hondartzan egotzeko, pasetzeko bazik. Saturraran esango nuke, han izan nituen bizipenengatik **Seminarioan** ikasi nuenen.

aldizkari xkiti horren izen ofiziala. Herriko etnografia eta demografia zuten ardatz artikulatu hainek beste batzuen artean. Horrez gain, garai hartan lehen filmak grabatzen hasi ginen: librogintzaren gainekoa Zubillagan eta Corpusei buruzkoa. 1982an, ordea, **Oñaitiko historia eta arte bilduma** liburua kaleratu genuen eta hori herria ezagutzeko aukera on bat zen.

Irakasuntza ogibidea izateaz aparte, historian, ondarean eta beste esparrutan murgildu zara.

–Herria bere osoz sunean aztertu dut. Pertsona, toki edo pasarte inguruko informazioa eta lana jasotzea oso gustuko dut. Bestalde, talde askotan ibili izan naiz (Kapirixo, Laixan, Artixa...) eta hori porzantia da. **Kontzejupetik** aldizkarian publikatzen ditudan artikulak argazkiak herria hobetu ezagutzeko baliagarri dira.

Nolako da edozein egun Jerardo Eioirtzaren bizitzan?

–(Barre). Erreritroa hartu nueneuk gauza gehiago egin behariko nintzuke: kiroia, paseatu... Baina beti ditut konpromisoak. Lagunek ezetz esaten ikasi behar dudala esaten didate. Ez da erraza. Dena den, astean zehar etxeko lanekin nahiko lan dut eta ondo etortzen dira burua apur bat arintzeko. Aldizkariak, egunkariak, historiako liburuek, saiakerak... irakurtzen ditut.

Mikeel Blain alkateak artxibo ibiltari moduan definitu zaitu.

–(Irribarre), Herriko gauzekin ibiliz, jende asko etortzen da niregana galderak egitera, horien artean, ikasle asko. Eskualdeko herriak nahiko azertu ditut. Arrasate, Bergara... eta Euskal Herriko beste hainbat toki ere. Bestalde, Udalak atarako duen bilduma –**Jerardo Eioirtza** izena izango duena – sorpresa izan da.

Zer proiektu duzu esku artean?

–Euskararekin zer harreman izan dudana jasoko duen lan bat. Egan aldizkariak eskatutakoa. Hogei bat orri idazrita ditut, baina 1965eraino beste herri ez naiz heldu. Manuel Ume-ter eta Mixel Plaza euskal idazle oñaitarrei buruz ere zeozer dut idaztita, beste gauza batzuen artean. ●

Bertan

bertandonostia@noticiasdegipuzkoa.eus

BIDASOA-TXINGUDI redaccion.bidasoa@noticiasdegipuzkoa.eus

CARSOALDEA redaccion.carsoalde@noticiasdegipuzkoa.eus

BURUNTZALDEA redaccion.buruntzalea@noticiasdegipuzkoa.eus

TOLOSALDEA redaccion.tolosalde@noticiasdegipuzkoa.eus

GOIERRI redaccion.goierri@noticiasdegipuzkoa.eus

UROLA GARAI redaccion.urolagarai@noticiasdegipuzkoa.eus

UROLA ERDIA redaccion.urolaerdia@noticiasdegipuzkoa.eus

UROLA KOSTA redaccion.urolakosta@noticiasdegipuzkoa.eus

DEBAGOIENA redaccion.debagoiena@noticiasdegipuzkoa.eus

DEBABARRENA redaccion.debabarre@noticiasdegipuzkoa.eus